

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Behatokia Lehengaiak

2024ko abendua




**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT**



Basque Trade & Investment cuenta con las autorizaciones necesarias para la elaboración del presente documento y sus anexos con información facilitada por los propietarios de las bases de datos utilizadas al efecto; así mismo, ha obtenido autorización para su difusión únicamente entre los destinatarios de los mismos.

Este documento y documentos anexos son confidenciales y dirigidos exclusivamente a los destinatarios de los mismos. Quedan terminantemente prohibidas la distribución, copia o difusión total o parcial de los mismos por ningún medio salvo a las personas autorizadas para su recepción dentro de la organización.

El destinatario se compromete a no manejar, usar, explotar o divulgar la información confidencial a ninguna persona o entidad por ningún motivo en contravención a lo dispuesto en esta cláusula, salvo que sea expresamente autorizado por escrito a hacerlo.

El uso no autorizado de la información contenida en el documento y sus anexos, así como el incumplimiento del deber de confidencialidad está sujeto a responsabilidades legales reservándose Basque Trade & Investment el derecho de reclamar el resarcimiento de los daños y perjuicios que le pudieran causar como consecuencia de la vulneración de sus deberes por parte del destinatario.

Basque Trade & Investment-ek behar diren baimen guztiak ditu dokumentu hau eta bere eranskinak prestatzeko horretarako erabilitako datu-baseen jabeek emandako informazioarekin; era berean, baimena lortu du dokumentu hau eta bere eranskinak banatzeko bakar-bakarrik bere hartzailleen artean.

Dokumentu hau eta bere eranskinak isilpekoak dira, eta bere hartzailerei bakarrik zuzentzen zaizkie. Guztiz debekatuta dago dokumentu horiek ezein bitartekoren bidez banatu, kopian eta osorik edo partzialki zabaltzea, salbu eta antolakunde barruan jasotzeko baimena duten pertsonen.

Hartzailak hitz ematen du ez duela isilpeko informazioa kudeatuko, erabiliko, ustatuko edo ezein pertsona edo erakunderi helaraziko ezelango arrazoiengatik klausula honek agintzen duenaren kontra, salbu eta idatziz ematen bazaio horretarako baimena.

Dokumentu honetan eta bere eranskinetan jasotako informazioa baimenik gabe erabiltzeak eta konfidentziasun betebeharra ez betetzeak ondorio legalak izango ditu, eta Basque Trade & Investment-ek eskubidea izango du kalte-ordainak eskatzeko hartzailak bere betebeharrak urratzeagatik gerta litezkeen kalteengatik.

Aurkibidea

1. Ikuspegi orokorra
2. Energia-lehengaien panorama
3. Lehengai industrialen panorama
- I. eranskina. Lehengai indibidualen prezioak





1

Ikuspegi orokorra

1. Ikuspegi orokorra



1

Ikuspegi orokorra



2

Energia-lehengaiak



3

Lehengai industrialak



Lehengaien prezioak jaitsi egin dira Trumpek irabazi ondoren eta Txinako politiken ondoren. Petrolioaren prezioak modu jarraituan jaitsi dira, eta, azken hiruhilekoan, gas naturalarena gorantz doa

■ Txinako politiken hedapenak eta Donald Trumpen garaipenak eragina izan dute oinarritzko metalen prezioetan.

Irailaren amaieran, Txinak **10 bilioi yuane**ko pakete bat aurkeztu zuen tokiko gobernuen finantzazioa arintzeko. Horrek, hasiera batean, **oinarritzko metalen prezioak bultzatu zituen**. Haatik, neurri horrek **ez zuen eskaini** inbertitzaileek espero zuten **zuzeneko pizgarri ekonomikoa**. Orduz geroztik eta, bereziki, **Trumpek irabazi** ostean, **prezioek atzera egin dute**. Beherakadarik handiena nikel eta kobreak izan da, Trumpen administrazioarekin trantsizio energetiko motelagoa aurreikusten delako.

Bestalde, **aluminioaren prezioa** oinarritzko beste metal batzuen baina **egonkorrago** agertu da: **Txinako zerga-politika** mugatuek balioa beheratzea eragin zuten, baina **aluminioaren horniduraren krisi iraunkorrak konpentsatu** egin du. Horrek, halaber, prezioak bultzatuko ditu 2025ean eta 2026an. **Kautxu naturala** dela eta, **maximo historikoak** jo ditu urrian, Tailandian uholdeak gertatu direlako eta **ekoizpena eten** dutelako.

Altzairuaren kasuan, **Txinako hornidurak mugatuta jarraitzea** aurreikusten da. Munduaren gainerakoan gora egingo du, ordea. Txinako politika hedakorrek **burdin mearen** prezioa bultzatu zuten hasiera batean, baina **bizkor egonkortu** zen. **Produktu luze eta lauek beheranzko joerarekin** jarraitzen dute, eta 2025ean suspertzea espero da.

■ Petrolioaren prezioari beheranzko aldia etorriko zaio

Azaroan, **Brenta** 71 USD-raino **jaitsi** zen, espero ziren 75 USD-tik behera. Urte amaierari begira zertxobait suspertzea aurreikusten da. WTl 70 USD-tik behera ibili zen **dolarra indartu** zelako eta **Txinako pizgarri-planen** ondorioz. Azkenean, **ez dira espero bezain hedakorrak izan**, eta ez dituzte inbertitzaileen itxaropenak bete. Hori dela eta, **LPEEk beherantz doitu zituen eskaeraren aurreikuspenak**. **2025erako**, prezioak **beheranzko joerarekin jarraitzea** aurreikusten da. Izan ere, Munduko Bankuaren arabera, petrolio gordinak bost urteko minimoa joko du 2025ean.

■ Gas naturalaren prezioak igo egin dira urtearen azken hiruhilekoan. 2025ean egonkortuko dira.

Urtearen azken hiruhilekoan, **gas naturalaren prezioek gorantz jarraitzen dute European eta AEBn**, ekoizpenaren etenaldiengatik eta eskaera handitu delako. Alabaina, **goranzko tarte 2025aren erdialdean gelditzea** espero da, eskaera murriztearen eraginez.

Lehengaien prezioak (IRM)	2022		2023		2024		2025	
WCF (World Commodity Forecast)	254,7	14,7%	216,3	-15,1%	216,1	-0,1%	213,8	-1,1%
IRM (Industrial Raw Materials)	220,2	4,5%	193,6	-12,1%	206,1	6,5%	216,2	4,9%
IRM: Metales	249,0	2,7%	220,5	-11,4%	235,2	6,7%	249,4	6,0%
IRM: Fibras	154,2	15,6%	128,5	-16,7%	124,2	-3,3%	125,4	1,0%
IRM: Caucho	211,8	-2,5%	196,9	-7,0%	252,6	28,3%	259,7	2,8%
IRM: Petróleo crudo	421,0	41,7%	348,4	-17,2%	344,8	-1,0%	325,8	-5,5%

A blue-tinted photograph of an airplane on a tarmac. The airplane's fuselage, wing, and tail are visible. A white geometric pattern, resembling a series of interlocking squares or a stylized staircase, is overlaid on the right side of the image. The text '2 Energia-lehengaien panorama' is written in white on the left side.

2

Energia-lehengaien
panorama

2. Energia-lehengaiak

Petrolioaren prezioak



1

Ikuspegi orokorra



2

Energia-lehengaiak



3

Lehengai industrialak



Petrolioaren prezioak beheratu dira LPEEk kontsumoa beherantz berrikusi eta gero, Trump berriz hautatu izanaren eraginarekin eta ekonomia berriz aktibatzeke nahikoak izan ez diren Txinako pizgarri-planen eraginarekin

Nola ari dira fluktuatzen prezioak?

- ❑ **Brentaren beherakadak etengabe:** aurreko behatokian, urtearen laugarren hiruhilekoan Brentaren prezioa 78 USD-tik gora mantentzea espero zen. Halarik ere, Brentak **hainbat astetako minimoak** jo zituen azaroan, **71 USD-ra arte**. **Urtearen amaierara bitarte zertxobait suspertzea** espero da, baina ez da inondik inora aurreikusten 78 USD-ak erraz gainditzea.
- ❑ **WTIa 70 USD-tik behera dabil aise:** azken proiektioei jarraituz, WTIaren prezioa 72 USD-tik behera dabil urtearen azken hiruhilekoan. Beherakada horren arrazoiak **dolarra indartzea eta Txinako plan hedakorrak** dira. Edonola ere, ekonomia espero bezala berriz aktibatzea lortu ez dutenez, 2024ko amaierarako eta 2025erako **aurreikuspenak beherantz berrikusi** dira.
- ❑ **2025erako iragarpenak beherantz berrikusi dira berriro:** egungo aurreikuspenen barruan, **Brentaren** batez besteko prezioa **eta WTIa aurreko behatokian aurreikusitakoa baino % 2 beherago kokatu dira 2025ari begira**.

Zer faktorek dute eragina prezioetan?

- ❑ **Donald Trumpen garaipena:** berriz hautatu izana **lagungarria izaten ari da petrolioaren prezioak jaisteko**, bi arrazoiengatik funtsean:
 - ❑ **Dolarra indartzea:** dolarra zenbat eta indartsuago, petrolioarek garestiago atzerriko dibisen erosleentzat. Hartara, **eskaera** eta prezioa **beheratu** egiten dira.
 - ❑ **Ekoizpena handitzea:** aurreko behatokian nabarmendu bezala, Trumpen garaipenak **erregai fosilen ekoizpena bultzatuko du**. Horren eraginez, **petrolioaren eskaintza handituko** da eta prezioek behera egiteko presioa sortuko da.
- ❑ **LPEEk beherantz berrikusi du eskaeraren hazkundera:** 2024rako espero zen eskaera **eguneko 107 milioi upeletik 104,03 milioi upelera jaitsi da**. Nagusiki, aurreikuspenak Txinan (politika hedakorrei buruzko albiste etsigarriengatik), Indian eta Asia eta Afrikako beste herrialde batzuetan murriztu dira.

		2022					2023					2024					2025				
		Q1	Q2	Q3	Q4	Urte a	Q1	Q2	Q3	Q4	Urte a	Q1	Q2	Q3	Q4	Urte a	Q1	Q2	Q3	Q4	Urte a
Petrolioaren prezioak, USD/upel	Brent Spot price	99,0	112,7	99,2	88,4	99,8	81,4	78,2	86,8	84,0	82,6	83,1	84,9	80,2	76,4	81,1	77,3	75,9	75,1	74,1	75,6
	WTI Spot price	94,5	108,7	91,8	82,9	94,4	76,1	73,8	82,5	78,4	77,7	77,0	80,8	75,2	71,9	76,2	72,9	71,9	71,1	70,3	71,6
	OPEC reference basket	97,6	112,4	101,9	87,7	99,9	80,7	78,4	87,7	85,2	83,0	81,8	85,3	78,8	75,5	80,4	76,0	74,9	73,9	73,1	74,5

2. Energia-lehengaiak

Gas naturalaren prezioak



1

Ikuspegi
orokorra



2

Energia-
lehengaiak



3

Lehengai
industrialak



Urtearen azken hiruhilekoan, gertaera meteorologikoek eta horniduraren mugek gasaren prezioak bultzatu dituzte Europan eta AEBn. Goranzko tartea 2025aren lehen erdian geldituko da

Nola ari dira fluktuatzen prezioak?

- ❑ **Europan:** aurreko behatokiaren proiektzioak berretsi dira; alegia, Europan, gas naturalaren prezioek **goranzko joera** izan dute **urtearen laugarren hiruhilekoan**. Hiruhilekoaren hasiera, beheranzko joera txikia sortu zen. Azaroaren erdian, haatik, prezioak **urteko maximora** heldu ziren: **13,8 USD/mmBTU**.
- ❑ **AEBn:** Henry Hub prezioen indizea % 8 baino gehiago **igo zen azaroan**, eta 3 USD/mmBTU-ra iritsi zen. Igoera hori **goranzko joera baten hasiera** izatea espero da, zeina 2025ean zehar mantentzeko daitekeen. Batez beste, **2025ean** prezioak 3,1 USD/mmBTU-ren bueltan ibiltzea espero da; hots, **% 47ko igoera** 2024aren aldean.
- ❑ **Asian:** gas natural likidotuaren (GNL) prezioek egonkor jarraitu dute, 13,40 USD/mmBTU-rekin, gutxi gorabehera. **Urtearen bukaeran pixka bat igotzea** aurreikusten da, Europako prezioen igoerak bultzatuta. Alabaina, eskualdeko egiturazko **eskaera ez da aski** oraindik ere, 14 USD/mmBTU-tik gorako prezioei eusteko epe labur eta ertainera.

Zer faktorek dute eragina prezioetan?

- ❑ **Europan:** hotz-bolada batek kontinentea astindu zuen azaroaren amaieran, eta, horren eraginez, elektrizitatea sortzeko **gasaren kontsumoa nabarmen handitu** zen. Gainera, OMV taldeak aditzera eman zuen **etenaldiak** gerta daitezkeela **Errusiako horniduran**, eta horrek prezioen goranzko joerari eutsi dio. Joera hori 2025ean eten daitekeen arren, **prezioa % 2,8 igotzea espero da, 2024ko batezbestekoarekin konparatuz**.
- ❑ **AEBn:** 2024ko azaroan, Rafael urakanak Mexikoko golkoa astindu zuen, non herrialdeko gas naturalaren ekoizpenaren % 2 inguru kontzentratuta dagoen. Gertaera horrek **prezioen igoerak 2025era arte irautea** eragin du, GNLaren eskaera handitu delako AEBn, eta Kanadako inportazio garbiak murriztu direlako.
- ❑ **Asian:** **GNLaren prezioak egonkorrak izango dira epe laburrera**, eta baliteke zertxobait igotzea urtaroen arabera. Trumpen duela gutxiko garaipenak ez du eragin nabaria izan Asiako GNLaren prezioetan. Nolanahi ere, merkatuak haren jarrerari adi jarraitzen du, batez ere proiektu berrietan **GNLa esportatzeko onarpenetan Bidenek ezarri duen etenaldiagatik**.

Gas naturalaren
prezioak, USD/mmBTU

	2022					2023					2024					2025				
	Q1	Q2	Q3	Q4	Urte a	Q1	Q2	Q3	Q4	Urte a	Q1	Q2	Q3	Q4	Urte a	Q1	Q2	Q3	Q4	Urte a
Henry hub	4,6	7,4	7,9	5,5	6,4	2,7	2,2	2,6	2,7	2,5	2,1	2,1	2,2	2,2	2,1	3,2	2,7	3,2	3,4	3,1
TTF (Europe)	32,6	31,6	60,2	36,9	40,3	16,8	11,3	10,8	13,5	13,1	8,8	10,0	11,5	13,1	10,8	12,5	11,4	10,1	10,3	11,1

A blue-tinted photograph of an airplane on a tarmac. The airplane's fuselage, wing, and tail are visible. A white geometric pattern, resembling a stylized staircase or a series of nested squares, is overlaid on the right side of the image. The text '3 Lehengai industrielen panorama' is written in white on the left side.

3

Lehengai industrielen
panorama

3. Lehengai industrialak

Aluminioa



1

Ikuspegi orokorra




2

Energia-lehengaiak



3

Lehengai industrialak



Aluminioaren eskaera eskaintza baino bizkorrago handituko da 2025ean. Prezioek goranzko joeran jarraitzea espero da.


Eskaera eta hornidura

Aluminioaren eskaera eskaintza baino bizkorrago handitzen ari da. Aldi berean, Europako ahuleziaren seinaleak ikusten dira oraindik sektore garrantzitsuetan.

Eskaera neurrian haziko den aurreikuspenek bere horretan jarraitzen dute (% 2,2), iraileko behatokia proiektatu bezala. **Aluminio primarioaren eskaerak** nabarmen **hazten jarraituko du Txinan**, eguzki-panelen fabrikazioak bultzatuta batik bat. Halere, **Europako eskaerak ahulezia erakutsi du** berriz **azken hilabeteotan**, aluminiorako garrantzitsuak diren sektoreak desazeleratu direlako; adibidez, automobilgintza eta eraikuntza. Aurreikuspenak aurreikuspen, badirudi **mundu-mailako eskaera neurri handiagoan haziko dela 2025ean** (% 2,6).

Aluminioaren mundu-mailako ekoizpena aurreko behatokia **aurreikusitakoa baino gehiago handitzea** aurreikusten da. Doikuntza horrekin, ekoizpena kontsumoa baino pixka bat handiagoa izatea espero da 2024an. Dena den, 2025ean desazelerazioa gertatzea espero da, **aluminaren horniduran** gerta daitezkeen **etenaldi gehigarriak** direla eta.

Aluminioaren eskaera eta hornidura, mila tona



Prezioa

Aluminioaren prezioek aldakor jarraitu dute urtearen azken hiruhilekoan. 2025ean ere prezioek gorantz jarraitzea espero da.

Londresko Metalen Burtsan (LME) **2024ko batez besteko prezioa tonako 2.438 USD** izatea espero da, hots, **aurreko behatokia aurreikusitakoa baino pixka bat handiagoa**. Prezioak aldakor dabilta urtearen azken hiruhilekoan, **azaro hasieran 2.690 USD** izan baitziren **tonako**. Igoera hori urtaroko eskaera handitzeak bultzatu zuen, baita banku zentralen babesak ere. **2025ari begira**, aluminioaren prezioak **hiru urteko maximoak** jotzea espero da.

Txinako politika hedakor mugatuek aluminioaren prezioa beheratzea eragin zuten urriaren hasieran. Halarik ere, **aluminaren horniduraren** arazo iraunkorrek joera hori orekatu dute, **prezioen gainean goranzko presioa** eragin baitute. Azaroaren hasieran, aluminaren prezioa 700 US\$-etik gorakoa izan zen tonako, hau da, LMEko prezioaren % 27. Hala, **maximo historikoetara** hurbildu zen eta **arisku nabariak eragin** zituen beren hornidura ez duten edo epe luzerako kontratuak dituzten galdategietan.

Aluminioaren prezioa, USD/tona

	2022	2023	2024	2025
Q1	3.280	2.395	2.199	2.700
Q2	2.874	2.258	2.519	2.700
Q3	2.353	2.154	2.382	2.550
Q4	2.323	2.190	2.650	2.650
Urtekoa	2.708	2.249	2.438	2.650

3. Lehengai industrialak

Kobrea



1

Ikuspegi orokorra




2

Energia-lehengaiak



3

Lehengai industrialak




Kobrearen ekoizpena eskaera baino handiagoa izango da 2024an eta 2025ean. Dolarra indartzeak prezioak jaistea eragingo du

Eskaera eta hornidura

Ekoizpena kobrearen mundu-mailako kontsumoa baino handiagoa izango da 2024an, baina AEBn aplikatutako politikak monitorizatu egin beharko dira.

Kobrearen 2024ko eskaerak iraileko zenbatespenak zertxobait gainditzea espero da, Europako eta AEBko politika monetarioaren lasaitzeak bultzatuta. Halaber, baliteke Trumpen duelako gutxiko garaipenak eragin negatiboa izatea kobrearen eskaeran epe labur eta ertainera, zeren, ziur asko, politika murriztaileagoak ezarri baititu Txinako inportazioekin eta energia berriztagarriekin. Halarik ere, Elon Musk Trumpen administrazioan zuzenean sartuta egoteak inpaktu hori arindu dezake hein batean.

Kobrearen ekoizpena aurreikusitakoa baino pixka bat gehiago haziko da (% +3,6). 2024an. Izan ere, urtetan lehendabiziko aldiz, ekoizpenak kontsumoa gainditzea espero da orain. Hala izango da Txinako eta Kongoko Errepublika Demokratikoko ekoizpen-ahalmena handituko delako.



Prezioa

Kobrearen prezioa oso aldakorra da oraindik ere epe laburrera. Bestalde, Trumpen garaipenak prezioak aldi baterako jaistea eragin du.

2024an, kobrearen prezioa LME 9.233 USD izatea espero da tonako, batez beste (irailean aurreikusitakoa baino % +1,5 handiagoa). Aurreikuspenak zuzendu egin dira behin eta berriz urtean zehar, rally espekulatiboengatik eta Txinako politika hedakorrekin lotutako ziurgabetasunagatik.

Dena den, Donald Trumpen garaipenak hiru hilean izandako beherakadarik handiena eragin zuen kobrearen eskurako prezioan. Beherakada gertatu da dolarra indartu delako batez ere. Kontua da, dollarraren balioa handitzen denean, moneta horretan kotizatzen diren metalak garestitzen direla, eta horrek kobrea erosteko pizgarria kentzen du mundu-mailan. Inpaktu hori ez da hiru hilez behingo batezbestekoetan ikusten, merkatuan izango duen eragina aldi baterakoa izatea espero delako. Kobrearen prezioa 2025ean % 7 igotzea espero da.

Kobrearen prezioa, USD/tona

	2022	2023	2024	2025
Q1	9996	8926	8438	9550
Q2	9512	8463	9752	9800
Q3	7744	8355	9203	10000
Q4	8000	8158	9540	10250
Urtekoa	8813	8476	9233	9900

3. Lehengai industrialak

Kautxu naturala



1

Ikuspegi orokorra




2

Energia-lehengaiak



3

Lehengai industrialak




Eskaintzaren eta eskaeraren itxaropenek txarrera egin dute ahulezia ekonomikoaren ondorioz. Prezioak aurreikusitakoa baino hein handiagoan igoko dira, Txinako politika hedakorren eraginez

Eskaera eta hornidura

Eskaera uste baino neurri handiagoan jaitsiko da 2024an, baina 2025ean suspertzea espero da. Mundu-mailako eskaintza gelditu egin da kontrako baldintza klimatikoengatik.

Kautxu naturalaren eskaera espero baino hein handiagoan murriztea aurreikusten da: % 1,5etik **% 1,7ra**. Arrazoia kontsumitzaile handi gehienek **jarduera ekonomiko ahula** da. Halarik ere, **2025ean suspertzeko itxaropenek bere horretan** jarraitzen dute, interes-tasak jaitsi egin direlako AEBn eta kontsumoaren eskaera akuilatu delako EBn.

Kautxuaren mundu-mailako eskaintza **2024an modu lauan haztea** espero da. Aurreko behatokian, igoera txiki bat proiektatu zen. **Herrialde ekoizle gehienetako ekaitz gogorrek**, baina, atzerapena eragin dute bilketan eta hainbat zuhaitz kaltetu dituzte.



Prezioa

Prezioak uste baino gehiago igoko dira 2024an. Nolanahi ere, EBk EUDR araudia atzeratzeko asmoa du, eta horrek goranzko eragina ere atzeratuko luke.

Ekoizpena hein txikiagoan haziko denez gero, kautxu naturalaren batez besteko prezioa **2024an 2.123 USD** izatea espero da **tonako**. Alegia, **irailean aurreikusitakoa baino % 10,4 handiagoa**. Igoera gertatu da Tailandian izandako kontrako baldintza klimatikoengatik, kautxuaren ekoizlerik handiena baita mundu osoan. Urrian, **13 urtean izandako preziorik handiena** jo zuen.

EUDR araudiaren harira, baliteke presio gehigarria eragitea prezioei. Europar Batasunak **ezarpena 2025eko abendura arte atzeratzea** proposatu du. 2024ko abenduan, atzerapena ez da bozkatu oraindik, baina, antza denez, **babes handia** izango du **eta litekeena onartzea da**. Horrek araudiaren eragin nabaria atzeratuko luke.

Kautxu naturalaren prezioa, USD/tona

	2022	2023	2024	2025
Q1	1803	1376	1970	2150
Q2	1875	1375	2122	2000
Q3	1410	1306	2098	1900
Q4	1264	1465	2300	1800
Urtekoa	1588	1380	2123	1963

Prezioak eskura Thai Rubber Research Institutuen RSS3, dolar tonako (bahten bihurtuta)

3. Lehengai industrialak

Nikela



1

Ikuspegi orokorra




2

Energia-lehengaiak



3

Lehengai industrialak




2024an eskaintza eta eskaera modu egonkorrean haztea aurreikusten da. Prezioek egonkor jarraituko dute Txinako marken onarpen bizkorragatik

Eskaera eta hornidura

Eskaera gorantz doa ekonomia nagusien susperraldi ekonomikoagatik. Eskaintza ere handitzen doa Txinako ekoizpena handitu delako.

2024an **nikelaren eskaera % 6 handitzea** aurreikusten da. Ondorioz, iraileko behatokian egindako aurreikuspenak (% 4,5) zertxobait berrikusi dira. Berrikuspenaren arrazoia da AEBk aplikatutako legeek **eragin positiboa** izan dutela; esate baterako, inflazioa murrizteko legea (IRA) eta azpiegituretan eta enpleguetan inbertitzeko legea (IIJA). Aitzitik, **Trumpen garaipena** ikusita, baliteke **ibilgailu elektriko eta energia berriztagarrien inbertsioa murriztea** 2025ari eta 2026ari begira, IRA programaren baitan.

Nikelaren hornidura 2024an **% 2,8 handitzea** aurreikusten da, iraileko aurreikuspenen kontrari, % 1,6ko beherakada aurreratu zen eta. Aurreikuspen hori nikel finduaren **Txinako ekoizpen nazionala handitu** izanaren ondorio da, 1. mailako materialaren eskuragarritasuna hobetuko duten tarteko produktuak erabiliz.



Prezioa

Beherakada nabaria Trumpek irabazi ostean. Markak onartu ondoren igo da, eta horrek likidezia bultzatu du eta aldi baterako igoeren arriskua arindu du.

Trumpek irabazi eta gero, nikelaren prezioak **% 6 jaitsi ziren**, 15.800 USD baino gutxiagoraino tonako, hots, **bost urtean izandako minimoak**. Horrenbestez, nikelaren prezioari buruz egindako proiektzioak baikorregiak izan ziren. Orain, **nikelaren batez besteko prezioa tonako 16.300 USD** izatea espero da 2024ko laugarren hiruhilekoan. Azken batean, **aurreko behatokian egindako aurreikuspenaren beheranzko berrikuspen bat** da, 16.900 USD aurreikusi baitziren tonako.

2025erako, nikelaren prezioak 17.250 USD-en bueltan egonkortzea aurreikusten da. Aldi baterako igoera nabariaren itxaropenak txikiagoak dira orain, **LMEk nikelaren Txinako marka berriak onartu** dituelako, 2022ko martxoan prezioen igoera historikoa berriz gerta ez dadin. Neurri horrek **merkatuaren likidezia hobetu** du.

Nikelaren prezioa, USD/tona

	2022	2023	2024	2025
Q1	26.483	25.968	16.584	17.100
Q2	28.928	22.297	18.410	17.300
Q3	22.053	20.334	16.250	17.250
Q4	25.279	17.241	16.300	17.500
Urtekoa	25.686	21.460	16.886	17.288

3. Lehengai industrialak

Altzairua



1

Ikuspegi orokorra




2

Energia-lehengaiak



3

Lehengai industrialak




Altzairuaren eskaera eta eskaintza handitu egingo dira 2025ean. Altzairuaren produktuen prezioak urte hasieran igoko dira

Eskaera eta hornidura

Altzairuaren mundu-mailako eskaera jaitsi egin da 2024an, baina 2025ean handitzea espero da. Nahiz eta hornidurak mugatuta jarraitzen duen, suspertuko da.

Altzairuak **2024an** mundu-mailan izandako eskaeraren egungo zenbatespenak **are beherago doitu dira aurreko behatokiaren aldean**. Orain, 1,86 bilioi tonako eskaera osoa eta **% 0,61eko beherapena** espero da, 2023ko egoerarekin konparatuta. Hala izan da altzairuaren kontsumoa murriztu delako Txinan. 2025ean, **altzairuaren mundu-mailako eskaera % 3,1 handitzea** espero da, 2021eko kopuruen antzera.

Altzairuaren mundu-mailako hornidurari dagokionez, iraileko behatokian aurreikusitakoa baino txikiagoa izatea espero da. **Urteko beherapena % -1,5ekoa** izan da, **Txinako gaitasunaren mugengatik eta gobernuaren murrizketengatik**. **2025ean eta 2026an mailaz maila suspertzea** aurreikusten da, ekoizpena handituko baita Europan, Indian eta AEBn.



Prezioa

Altzairuaren prezioa jaisteko aurreikuspena areagotu da 2024an. Altzairuaren produktuen prezioak igoko dira 2025ean, txatarraren prezioa igoko baita.

Aurreko behatokian, altzairuaren prezioa % 9 jaitea aurreikusi zen. Azken berrikuspenen ostean, ordea, **2024an prezioa % 10,5 jaitea** espero da, eta, **gutxienez, 518 USD** izango dira **tonako**. Aurreikuspenak behetik dabilta Txinako ekonomia poliki suspertzen ari delako. Urrian, **burdin mearen** prezioak gora egin zuen, Txinako hedapen-neurriengatik baikortasunak bultzatuta. Halarik ere, prezioek **atzera egin zuten** hilaren erdian, neurri horiek ez zituztelako igoera jarraituak sostengatu.

Europan, **produktu lauen** (HRC eta CRC) prezioak **minimoan** dabilta, baina **2025aren hasieran igo** daitezke, inportazio-kostuak handitu direlako eta ekoizpenean murrizketak gerta daitezkeelako. **Produktu luzeetan** (alanbre-burdina eta HRP), **antzeko joera** espero da: igoera handiak 2025aren hasieran, txatarraren prezioak igo daitezkeelakoan.

Altzairuzko produktuen prezioa, USD/tona	2023					2024					2025				
	Q1	Q2	Q3	Q4	Urt ea	Q1	Q2	Q3	Q4	Urt ea	Q1	Q2	Q3	Q4	Urt ea
Burdin mea - CFR Txina (\$ zentimo/tona metriko lehorra)	126	112	115	129	121	123	113	107	112	114	121	125	120	121	122
Altzairua - HRC 3mm FOB Txina (US\$/tona)	641	578	554	543	579	557	528	487	500	518	540	560	535	540	544
Altzairua - HRC Europa (US\$/tona) ¹	824	844	711	692	768	781	696	668	603	687	703	760	729	-	-
Altzairua- CRC Europa (US\$/tona) ¹	919	947	811	791	867	870	793	769	702	783	799	856	826	-	-
Altzairua- Alanbre Burdina Europa (US\$/tona) ¹	738	707	620	641	677	692	661	657	645	664	694	706	694	-	-
Altzairua - HRP Europa (US\$/tona) ¹	1.018	998	869	819	926	855	806	749	708	780	790	833	810	-	-

¹ EUR/USD = 1,07 bihurtza-faktorea. Hiruhilekoko eta urteko prezioak hilabeteko neurrien arabera kalkulatu dira

A blue-tinted photograph of an airplane on a tarmac. The airplane's fuselage, wing, and tail are visible. A white geometric pattern, resembling a series of overlapping squares or a staircase, is overlaid on the right side of the image. The text "Eranskina. Lehengai indibidualen prezioak" is written in white on the left side of the image.

**Eranskina. Lehengai
indibidualen prezioak**

Eranskina. Lehengai indibidualen prezioak

Produktua	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028
Kautxua (US\$/tona) (New York, RSS1 spot price)	1.766	2.218	2.162	2.009	2.579	2.651	2.478	2.315	2.164	2.022
Kotoia (US zentimo/libra)	71,9	101,2	129,9	95,0	87,3	88,6	92,1	95,7	99,5	103,5
Artilea (Aus zentimo/kg)	1.195	1.191	1.188	1.184	1.195	1.195	1.195	1.195	1.195	1.195
Aluminioa (US\$/tona)	1.702	2.476	2.708	2.249	2.438	2.650	2.711	2.750	2.800	2.851
Kobrea (US zentimo/libra)	279,8	422,7	399,7	384,4	418,9	449,1	487,6	529,5	574,9	624,3
Beruna (US zentimo/libra)	82,7	100,0	97,6	96,9	94,1	90,2	97,6	105,7	114,5	124,0
Nikela (US\$/libra)	6,2	8,4	11,7	9,7	7,7	7,8	8,6	9,5	10,5	11,5
Eztainua (US\$/libra)	7,8	14,8	14,2	11,8	13,9	14,6	14,8	15,0	15,3	15,5
Zinka (US zentimo/libra)	102,6	136,3	158,1	119,9	126,8	127,5	126,8	126,1	125,5	124,8
Burdin mea (\$ zentimo/tona metriko lehorra)	108,9	161,7	121,3	120,6	109,7	111,5	115,6	119,9	124,3	128,8
Altzairua - HRC FOB Txina (US\$/tona)	486,5	842,5	680,0	579,0	518,0	543,8	563,8	584,5	606,0	628,3
Urrea (US\$/ontza)	1.770	1.800	1.801	1.943	2.397	2.768	2.675	2.550	2.465	2.382
Paladioa (US\$/ontza, Londres)	2.205	2.417	2.135	1.351	984,1	992,6	1.013	1.033	1.054	1.075
Platinoa (US\$/ontza)	883,4	1.091	961,7	966,4	954,2	976,1	996,0	1.017	1.037	1.059
Zilarra (US zentimo/ontza)	2.054	2.517	2.179	2.340	2.844	3.290	3.180	3.032	2.930	2.832
DAP (\$/tona)	300,8	601,0	772,2	550,0	554,6	508,2	464,2	444,1	424,9	406,5
Fosfatoa arrokan (\$/tona)	76,1	123,2	266,2	323,8	152,5	148,9	143,0	142,4	141,9	141,3
Petrolioa: Brent (US\$/upela)	42,3	70,4	99,8	82,6	81,1	75,6	72,9	71,0	69,4	67,9
Petrolioa: OPEC erreferentziatzko prezioa (US\$/upela)	41,4	69,7	99,9	83,0	80,4	74,5	71,8	69,9	68,4	66,9
Petrolioa: WTI (US\$/upela)	39,3	68,0	94,4	77,7	76,2	71,6	69,1	67,3	65,7	64,3
Gas naturala (Us\$/milioi BTU, Europa)	3,2	16,1	40,3	13,1	10,8	11,1	8,6	7,2	7,2	7,1
Gas naturala (Us\$/milioi BTU, US)	2,0	3,9	6,4	2,5	2,1	3,1	3,2	3,1	3,1	3,0
Gas natural likidotua (Us\$/milioi BTU, JPN)	8,3	10,8	18,4	14,4	12,9	12,0	10,5	9,3	9,2	9,2
Ikatza (US\$/tona, Australia)	60,8	138,1	344,9	172,8	141,3	102,5	85,0	76,5	68,9	62,0